



ZUZENBIDEA HASTEAR ZAUDEN HORRI...

Aitor ULANGA GANUZA

Zuzenbidean graduatua eta Abokatutza Masterrean tituluduna

Adiskide hori,

Ziurrenik ez dira gutxi izango egun hauetan zehar zure buruari egingo dizkiozun galderak. Esate baterako, nolakoa izango ote da egun gutxi barru eta ondorengo urteetan ezagutuko dudan unibertsitate mundua? Batxilergotik Unibertsitaterako “jauzia” ondo egingo ote dut? Behar bezala egokituko ote naiz Fakultatearen mailara? Nolakoak izango ote dira ezagutuko ditudan gelakide eta irakasleak?

Nik ere antzeko galderak egiten nizkion neure buruari jadanik oso urrun gelditzen den 2008. urteko irailean, Zuzenbide karrera hastear nengoenean. Eta hein batean, obsesiora iritsi gabe noski, normala da; zuretzat ezezaguna den mundu batean sartzeaz baitzaude.

Apaltasun osoz, Zuzenbidean graduatu eta Abokatutza Masterrean tituludun naizen aldetik, agian baliozkoak izango zaizkizun aholku batzuk eman nahiko nizkizuke. Noski, jaramonik ez egiteko eskubide osoa duzu; baina horretarako lehenik eta behin, artikulua irakurtzea estimatuko nizuke. Gainera, datozen urteetan irakurri beharko dituzun testuekin alderatuz, artikulua hau irakurterraza irudituko zaizu!

Lehen aholku gisa, lasaitasun pixka bat izatea gomendatuko nizuke. Bai, batxilergoan horrenbeste hitz egin dizuten unibertsitatean sartzeaz zaude, baina lasai ez zara ez lehenengoa ez azkenekoa izango. Zu bezala beste asko igaro gara egoera beretik eta zure ondoren ere, asko egongo dira zu orain zauden egoeran. Beraz, lo lasaitasunez egin ezazu. Bigarrenik, ez zaitez izutu Zuzenbide karrerak kalean duen famarekin. Zure lagun, senitarteko edo bizilagunek “Zuzenbidea ikasiko dut” esan diezunean ziurrenik begirada errukior bat bota dizute edota liburutegian lege liburuak ikasten gaixotzeko asmorik ote duzun galdetuko zizuten. Fakultatean gauzak ondo badoazkizu, kurtsuak pasa ahala ikasi eta ikusiko duzu, lege zehatzak memorizatzean baino, lege kontzeptuak ulertzean jartzen dela gakoa.

Hau da, Zuzenbide karrera amaitzen duzunean, ez dituzu Kode Zibilaren 1976 artikulua buruz jakingo, baina bertako punturik garrantzitsuenen esanahia (ondasun errealak, oinordetak, etab.) nahikoa ondo ulertuko dituzu. Eta zergatik ez dira bada artikulua buruz ikasten? Ba Kodeak beti eskura izango dituzulako, eta ondorioz, artikuluen memorizazio hutsa baino, hobe delako Kodeko kontzeptu garrantzitsuenak ondo ikastea.

Hala ere, ez pentsa ikasteaz libratuko zarenik. Ez dago Zuzenbide karrera ateratzerik, ikasten orduak sartu gabe (zenbat ordu sartu, norberaren gaitasunaren eta ikasi beharreko materiaren arabera da, ez dago estandar finko bat). Eta bakarren batek ikasgai bat ikasi gabe gaingitu duela esaten badizu, adarra jotzen ari zaizu. Egintza administratibo bat deuseza edo deuseztagarria den jakitea edota nahi dugun helegitea zein epaitegiren aurrean zein epeetan tarteratu behar dugun jakitea, ezinezkoa da, kafetegian, mus edo xakean buru belarri bazabiltza. Zer egingo diogu bada, Zuzenbide Fakultatean, dena ez da arrosa kolorekoa!





Unibertsitateko irakasleez ere, ni Zuzenbidea hastear nengoenean bezalaxe, gauza asko entzungo zenituen. Hala ere, ez kezkatu. Ez dira ikasle artaldea jateko gogoz dauden otso batzuk. Ziurrenik, kuriositatea izango duzu, Unibertsitatean ikasle-irakasle harremana nola bideratzen den jakiteko. Bada, bideratze hori, bide desberdinetatik gauzatzen da. Batetik, tutoretzak daude. Alegia, tutoretza orduetan, irakasleak derrigor bere bulegoan egon behar du, ikasleren bat bertaratuz gero, bere zalantzak argitzeko. Baina, zer gertatzen da tutoretza orduetatik kanpo, irakaslearekin harremanetan jarri nahi baduzu? Oso erraza, aski izango duzu dagokion irakasleari e-mail bat bidaltzearekin. Astia duenean, erantzungo dizu.

Unibertsitateko klaseez ere, makina bat gauza entzungo zenituen. Bada, Zuzenbide Fakultatean, oro har, ikasleen parte hartzea egon dadila nahi izaten da. Horretarako, klase osoa irakaslearen monologo huts bat izan ez dadin, zuk ere ekimena hartu eta parte hartu behar duzu. Eta ez izan hanka sartzeko beldurrik. Hobe da, galdetu eta hanka sartzea, ez galdetu eta zalantzetan gelditzea baino. Inor ez da jakinda jaiotzen eta Zuzenbide ikasle izateak, Zuzenbideari buruz ikasten ari zarela esan nahi du. Alegia, ez zarela aditu bat. Beraz, hanka sartzeko eskubidea duzu. Zure ustea okerra bada, dagokion irakasleak zuzenduko dizu. Gainera, irakasleek ere eskertuko dute, ikasle gisa, gaiarekin loturiko zalantzak galdetzea.

Amaitze aldera eta oraindik goizegi irudituko zaizun arren, ikasturteak pasa ahala, gerora begira zer izan nahiko zenukeen ere pentsa ezazu. Oraindik oso urrun dagoela dirudi, baina, denborak etengabe egiten du aurrera. Alegia, besteak beste, abokatu, epaile edota notario gisa ikusten ote zaren pentsatzen hastea ez legoke gaizki. Ez da oraingo kezka, baina azken unean jokoz kanpo harrapa ez zaitzan, pixkanaka pixkanaka hasi zaitex, zein lanbide gogoko zenukeen pentsatzen.

Tira, honaino nire aholku sorta. Ez dakit baliozkoa izango ote zaizun edo ez. Hala ere, hastear zauden ibilbide berrian, zorterik hoberena opa dizut. Urte batzuren buruan, zu honen antzeko idazki bat egiten bazaude, ez litzateke seinale txarra izango!